

Sinn Feinn eta gobernu britainiarra biltzetik gertu daudenean

Mesfidantza usaina Derryko kaleetan

Derryra iritsi eta berehala zeharkatu dugu Boyne ibaia, protestanteen auzoak -% 20- eta katolikoek -% 80- banatzen dituen ibai handi eta ederra. «Derryn nazionalistok nagusi gara, hemen guk agintzen dugu», diosku Tony gure kontaktuak, guztiz sinetsi barik baina baita harrotasun apur batekin ere.

100.000 pertsonako hiria da Derry eta udaletxean, John Hume zuzentzen duen SDLPren eta Sinn Feinen artean 30 zinegotzietatik 20 dauzkate; 15 lehenek eta 5 bigarrenak.

Ingurutetan ibili ondoren, laster kontura liteke Polizia eta Britainia Handiko Armadaren koartel eta dorre erraldoiak noren beldur diren. Alde protestantean baina ibaiaren alde katolikora ematen duten dorreak, IRAren granada eta morteroen beldur, hesiz tinko babestuak daude; alde protestanteak ez.

Derryko zentroa eta gune historiko aldera gorantz abiatuz, 1614-1619 artean eraikitako harresiekin egin dugu topo; herri bat inguratzeko European egindako azkenak ei dira. Edozeinek esango luke herria ondo ba-

bestuta dagoela, eta zaindua, ez bakarrik harresien-gatik, gotorlekuaren tontorrean zaindari gisa dauden koartel militar eta kamera eta mikrofonoz jositako kontrol dorreagatik baizik. Derryn «hariztia» esan gura du- garai batean haritz erraldoiak ziren nagusi, gaur egun oster, polizia eta soldadu britainiarren bederatziko koartel eta dozenaka kontrol dorreek ordezkatu dituzte. Dorre batean, ezagutzen ez dudana zenbait tresneriaren artean, zazpi kamera eta 4 mikrofono luze ikusi ahal izan ditut.

«Azken urte honetan, azken hamar urteotan baino gehiago aurreratu dugu; baina aurrerapen hau aurreko urte guztietako borrokari esker izan da»

PAT RICE

Noranahi joanda ere okupazio britainiarra agerikoa da; alabaina, kaleetan ez da polizia edo soldadurik ikusten, ez Derryn ez Belfasten. Polizia eta soldaduen ohizko irudia desagertua da. Ibili badabiltza ordea, noizean behin auto «ezkuturen» bat ikusten da eta barruan uniforme jantzitako *Royal Ulster Constabulary*-ko poliziaz.

Ipar Irlandako Poliziaren %93 protestantea da, eta arruntenak 6.000.000 bat pezeta (240.000 libera) poltsikoratzen ditu urtean. Horrela, apika, hobetoxeago



uler daitezke polizia-kopurua gutxitzeko dauden barne erresistentziak. 800 bat soldaduk aldegin du jada, beste 18.000k eta 13.000 poliziek bertan darraite. Antolakuntza honen guztiaren erdian, datu bitxi bat: Ipar Irlandan gaur egun ez da tortura edo tratu txarrik, «Zaplasteren bat akaso, baina ezer ez».

Bazko Eguna garrantzi-



tsua da Irlandan: 1916an Dublínen abertzale irlandarrak britainiarren aurka altxatu ziren urteurrena ospatzen da. Arratsaldeko hiruretan, Sinn Feinek antolatuta, hilerri katolikorainoko ibilaldia egiten da, eta bertan *«Derryn Irlanda batua eta askearen alde borrokan bil diren guztiak omenduko ditugu»*, diosku Sinn Feineko militante batek.

Bogsideetik abiatu da, 1969ko istilu larrietan katolikoek *Free Derry* (Derry askea) aldarrikatu zuten auzotik. Ordubeteko atzerapenez -oro har orduarekiko zintzotasuna kaskar samarra da- hiruzpalau mila pertsonen ekin diote ibilaldiari. Bi musika banda eta martxaren buruan uniformatutako hamar pertsonen, desfile militarrean, martxa aitzinatzen

dute. Hauen atzean hildakoen argazkiak, loreak eta adin guztietako lagunak. Oihu bakarra ere ez, eta guztiok zaintzen RUCeko hiru ibilgailu blindatu martxaren aurretik. Hilerrira orduko sei ziren.

Bukatu eta derrytar batek euskaldunak bere etxera gonbidatu gaitu. Konfiantza hartu ahala, bat eta bi luzatzen ditudan galderak doaz-

Ezkerrean, Bazko Eguneko martxaren burua Bogside auzotik («Free Derry») ateratzeko unean, eta atzeko paretan hildakoen argazkiak; eskuinean, 1969ko gertakizunak gogoratuz, auzoaren sarreran dagoen murala. Argazkiak: Xabier Letona.



Martinn MacGuinness-en gidaritzapean, herritarrak polizia Derrytik ateratzeko eskatzen. (Arg.:Kearney).

kie bera eta lagunei: «Nola ikusten duzue bake prozesua?». Isilunea. «Britainiarrak jolasean ari dira, bede-

ratzi hilabete ondoren, oraindik Sinn Fein ez da ministroekin bildu». Sinn Fein eta Martin MacGuinness-IRAREN 'ahotsa'- herkiea gan konfiantza itzela dute; britainiarrengan, aldiz, mesfidantza izugarria. Azalpen jantziago edo xeheagoekin, erantzunak antzerakoak dira giro errepublikarretan.

Buruzagien segurtasuna

SINN Feineko buruzagiek, ordea, argi dute prozesua luzea izango dela. «Hasieratik genekien hori, borrokan dibardutenek herriak baino pazientzia handiagoa dute. IRA oso batua dago, baina egia da: Sinn Feinen pazientzia ukitzen ari dira, eta herriarena ere

bai», diosku Pat Rice, Belfast ondoko herri bateko Sinn Feineko zinegotzia eta Euskal Herrian jardundako irakasle ezagunak.

Belfasteko bere etxean gaude, atek eta leihoak bikoitzak dira, lehenbizi normalak baina ondoren burdinazkoak. Rice jauna zuhertasunez mintzo da, baina baikorra da, «1985ean mugimendu errepublikarra erabat bakartua zegoen eta horrekin guztiarekin apurtu da, aurrera egin dugu. Azken urte honetan azken hamar urteetan baino gehiago aurreratu dugu, baina aurrerapen hau guztia aurretik egindako borrokatik da. Abertzaleen batasuna, era berean, ezinbestekoa izan da bide honi ekiteko».

Sinn Feinek IRAk armak eman ditzan gobernu britainiarraren baldintza nola gaudituko duten galdetu diogu. «IRA ez da garaitua izan, parra zegoen. Nola entregatuko ditu armak, beraz? Britainiarrek abal zuten guztia atzeratu dute prozesua baina jadanik ezin dute gehiago atzeratu. Aurki biltz egiten hasi beharko dira».

Polizia bikote bakarra ikusi ondoren, Belfast utzi eta Derryrako bidean gaude berriro. Ipar haizea hezurretaraino sartzen da eta berotzeko Waterloo kaleko Patters tabernara goaz, Guinnessaz barrenok apur bat berotzera. Bertako kirol nagusia da. Gaueko ordu honetan ez, baina arratsal-

«Koartel eta kontrol dorreengatik okupazio britainiarra agerikoa bada ere, Derry eta Belfastko kaleetan ez da polizia edo soldadurik ikusten»

Uda honetan **OPORRETARA**

JOAN nahi badezu gure bulegoetan

SARTU behar zenuke

BIDAIAK



Gainera, aukeratu nahi badezu, ez itxaron eta erreserba egin. OCA gure programa berezia eska ezazu. Aurretiazko erosketagatik deskontu handiak. Gure eskupapera aurreratu dugu zuk erreserba aurreratu dezazun, eta abantaila denak zure alde dituzu.

DONOSTIA: San Marcial, 1 ● Urbietan, 59

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK: 902 108 108



Dorre zaindaria kentearen aldeko kontzentrazioa.
(Argazkia: Jarlam Kearney).

deko orduetan 60-70 urteko amona taldeak ere Guinness edo beste garagardo *pinta* banarekin dihardu mahaia- ren inguruan.

Sàbaian ikurrina dago. Aldameneko mahaian preso talde bat, asteburuko bai- menarekin atera dira kalera. «*Basque Country? Very, very good.*» Saoirse presoen sos- tenguko batzordekoak, as- teburuero moduan, itsu-la- pikoaz dirua biltzen ari dira tabernaz taberna.

Kieran Pritchard-ek, es- petxean zazpi urte iragan dituen 31 urteko preso ohi eta *saoirse*-kideak azaldu dizkigu presoen inguruko kontuak. Errepublikarrak 700 dira eta gehientsuenak Ipar Irlandako hiru espe-

txetan biltzen dituzte, 30 bat Ingalaterran daude eta Hego Irlandan beste 45; hauetatik jadanik 12 askatu dituzte. Kondenatuak ordu erdiko bisita -familiarak zein la- gunenak- astean eta behin- behinekoek hiru; telefonoz eta postaz harremanak iza- teko arazorik ez. «1984az geroztik ez dira presoekin sartzen, giltzaperaturik bai- na presoek, komuna anto- lamenduarekin, euren bizi- tza zentzu guztietan anto- latzen dute».

Taberna itxi digute, kan- poan ipar haizeak hortzak dantzan jartzen dizkigu eta bagoaz lotara. Bihar abioia hartu beharra dago.

XABIER LETONA

La Casa del Café

— Juan Irujo, S. A. —
DONOSTIA